

Mariano Ferrer, “hizkuntzakeriari” eta “isilkeriari” aurre egin zien kazetaria

Ereinek iragan urtean EHUK donostiarrari eskainitako Udako Ikastaroetan esan zirenak jaso ditu liburu berri batean


✎ Harri X. Fernández
📷 Ruben Plaza

DONOSTIA – “Mariano Ferrer kazetari erreflexiboa izan zen, gaur egun slow journalism korrontean koka genezakeena”. Horrela mintzatu zen atzo Ramón Zallo, EHUKo katedraduna eta Ferrer (1936-2019) zenaren laguna. Zallok, beste hainbat aditu eta kazetarirekin batera, iragan urtean berriemaile donostiarren ibilbidea eta pentsamendua aztertzeko EHUK antolatutako Udako Ikastaroan parte hartu zuen. Han esan zirenak jaso ditu orain Erein argitaletxeak, *Mariano Ferrer, el periodismo reflexivo/Kazetaritza eta konpromisoa* izenburupean argitaratutako liburuan.

Elixabete Garmendia izan da edizioaren koordinatzailea eta berak, Zallo, Marianoren alaba Esther Ferrer eta Bernardo Atxaga idazlearekin batera aurkeztu zuen liburuki berria, kazetaritza eskoletarako “material ugari” eta “aparta” biltzen duena. Halere, testu bilduma osatzeko ez omen dute bakarrik publiko espezializatu gogoan izan, irakurle orokorra ere kontuan izan dute. Alegia, Ferrer Euskal Herriko gertakari soziopolitikoaren kronista izan zen heinean, gertakizun historiko horietan interesa duen edonorentzat ere oso liburu aproposa dela iritzi du koordinatzaileak, horien artean, seguru, *Herri Irratiko El kiosko de la Rosi* saio “mitikoaren” entzule ugari eta fidelak.

Liburuaren azalak –Ferrerri 1970ko hamarkadan Konstituzio plazan ataratako argazki bat, “neorrealismo italiarrean” koka litekeena– eta izenburuak berak, donostiarraren izaera poliedrikoa, Marianoren hausnarketarako jitea primeran islatzen dituela aipatu du haren alabak.

Testuei dagokionean euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu dira, biak tar-



Mariano Ferrerren lagun eta senideak Ereinek argitaratutako liburuaren aurkezpenera hurbildu ziren atzo.

tekatuz, jatorrizko ponentzietan erabili ziren hizkuntzak errespetatuz. Beste hainbeste edukiei dagokionean, Udako Ikastaroa antolatu zen modu berean ordenatu baitira atalak liburuan ere. Deustuko Unibertsitateko irakasle Maria Pilar Rodríguezek eta EHUKo ikertzaile ohi Txema Ramírez de la Piscinak donostiarraren kazetaritza metodoa aztertu dute. Ramon Zallok eta Pedro Ibarak, haiek ere unibertsitate publikoko irakasle izandakoak, Ferrer analista politikoa gisa aztertu dute.

Garmendiak aditzera eman zuenez, beste ponentzia batzuek Mariano zenaren figura “pertsonalean” jarri

dute begirada. Esate baterako, Karlos Ordoñezek kazetari donostiarraren alderdi ekintzailea izan du hizpide, bereziki, SOS Arrazakeria elkartearekin izan zuen hartu-emanen oinarriturik. Martxelo Otamendi *Berriako* zuzendari ohiak “Ferrer kazetariaren sendotasuna eta sinesgarritasuna” azpimarratu zituen eta, baita proposamen bat bota ere: kazetariaren biografia bat idatzi beharra. “Apunte biografiko” batzuk ere topa litezke Ereinen publikazioan, Sabino Ormazabalaren eskutik. Bernardo Atxaga idazleak, aldiz, haren “erretratua marraztu du”, Ferrerren ezaugarri nagusietako batetik abiatuta: ahotsa.

Amaitzeko, ikastaroan izan ziren mahai-inguruetan esandakoak ere jaso dituzte, konkretuki, Marianoren garaietatik gaurdaino kazetaritzak bizi izan duen bilakaera.

Garmendiaren ondoren Atxagak hartu zuen hitza, kazetariak izan zituen etsaietako bi aipatzeko: “isilkeria” eta “Hizkuntzakeria”. Ferrer lanean hasi zenean, Frankismoa indarrean zegoen artean eta, beraz, “isilkeria” araua zen, eta hainbat eta hainbat “errealitate” ezin ziren komunikatu. Ondorioz, “gezur borobila zen auzi nagusia, edozeinek ikusteko modukoa, baina ofizialki esan ezin zitekeena”. Etsai honen aurrean,

Ferrer “nahiko eroso” ibili zela, gaineratu zuen Atxagak, *Herri Irratia* sortu zuen Jesusen Lagundiaren “babe-sa” zuelako, hain zuzen ere. “Abantaila hori probestu zuen bere egiak esateko”, esan zuen.

Gerora, “hizkuntzakeria” iritsiko zen, gaur egun, indarrean jarraitzen duen gaia. “Hizkuntzak berak gezurra dakar, manipulatu egiten du” eta oso “auzi bihurria” bihurtu da, idazlearen ustez. Nola egin zion aurre-Ferre-ri bigarren etsai horri? Ba, Atxagak argi du: bere burua “oso ondo prestatuz, egunero lan eginez”, egunkariak sakonki aztertuz eta han agertzen ziren “gezurak azpimarratuz”. ●

Hollywood modifica los requisitos para lograr el Óscar a Mejor película

La Academia exigirá más tiempo de proyección en salas para contrarrestar el poder del ‘streaming’

DONOSTIA – La Academia de Hollywood anunció ayer un nuevo requisito para aquellas producciones que decidan postularse en la categoría de mejor película de cara a la 97ª edición de los Óscar, prevista para el 10 de marzo de 2024.

Hasta hoy, a los filmes contendientes les bastaba con haber contado con

un circuito de difusión que se limitase a una semana de exhibición en una de las seis principales ciudades de Estados Unidos. Sin embargo, a partir de ahora, las cintas deberán haberse exhibido adicionalmente otros siete días, consecutivos o no, en 10 de las 50 urbes más relevantes de Estados Unidos como máximo 45 días después del estreno inicial. Esta ampliación del periodo de exhibición en salas deberá haberse completado como máximo el 24 de enero de 2024.

A través de este cambio, la Academia trata de contrarrestar el peso específico de plataformas de stream-

ing como Netflix, Amazon o Apple, que están funcionando en muchos casos como verdaderos escaparates de películas contendientes con escasa proyección en salas de cine y, en ocasiones, con un notable desinterés del público.

No obstante, los nuevos criterios podrían perjudicar a filmes independientes de menor presupuesto, que ahora tendrán que luchar por hacerse hueco en un contexto en el que las propias películas producidas por las plataformas jugarán con la ventaja de poder invertir más en su distribución. – Efe

Una ‘performance’ para homenajear a Oteiza

Dirigida por Laida Aldaz, este espectáculo multidisciplinar se mostrará hoy y mañana en Alzuza

DONOSTIA – La *performance In Perspective/20 Oteiza*, dirigida por Laida Aldaz, se mostrará hoy y mañana en el Museo Oteiza, en Alzuza, dentro del programa de acciones previstas por el 20º aniversario del fallecimiento del escultor oriotarra. *In Perspective*, una producción de Zinetika Festival, es una *performance* multidisciplinar

basada en el encuentro entre la danza, la arquitectura y la música en espacios no escénicos. La *performance* juega con las perspectivas evocando una atmósfera cinematográfica. Se trata de una composición única para el Museo Oteiza, ya que se tienen en cuenta el espacio y el entorno arquitectónico para decidir dónde, cómo y qué danza se quiere crear. Esta versión se ha creado junto a los estudiantes de la Generación 5 de La Factoría Choreographic Center, el músico Juanma Urriza, el asistente de dirección Gregory Alliot y la directora artística Laida Aldaz. – Efe